

Zangoza / 2025

KULTUR AGENDA

urria



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
SANGÜESA PALACIO VALLESANTORO
KULTUR ETXEA
ZANGOZA



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: astelehenetan 09:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa aretoko ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, larunbatetan 19:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalara karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultur agenda jarrai dezakezu.

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: irailaren 30etik aurrera Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Informazio-telefonoa:** 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoan (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik.

Telefonoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte Txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean, sarrera hor bertan edo internet bidez erosi bada ere. .

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora. Txartel-leihatilan ere adieraz daiteke erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: www.sanguesa.es

KULTUR AGENDA

urria



1 Az	Erakusketa. «Jantzigintza eta kapelagintza» (urriaren 19a bitarte)	4. Orr.
Az	Erakusketa. «San Salvador, berraurkitzeke dagoen eliza» (urriaren 12a bitarte)	5. Orr.
2 Og		
3 Os		
4 La	Antzerkia. «Escape Room»	6. Orr.
5 Ig	Dantza eta musika tradizionala . «Batzen»	6. Orr.
6 Al		
7 As		
8 Az		
9 Og	Hitzaldia. «Karlos III. Noblea»	14. Orr.
10 Os	Ikastaroetan izena emateko epearen amaiera	13. Orr.
11 La	Musika. «Un paseo por la zarzuela»	7. Orr.
12 Ig	Zinea. «Buffalo Kids»	10. Orr.
13 Al	«Zangozako Jaiak 2025» VIII. Argazki Lehiaketaren epearen amaiera	5. Orr.
14 As		
15 Az	Ipuin kontalaria. «Todo el mundo a bordo»	11. Orr.
16 Og	Hitzaldia. «Maiestate, prest dago berorren hopalanda. Jantzea Karlos III.aren gortean (1387-1425)»	14. Orr.
17 Os	Haurrendako sortze-dantzako tailerren hasiera	12. Orr.
18 La	Antzerkia. «Guapa»	8. Orr.
19 Ig	Musika. La Calma	9. Orr.
20 Al		
21 As	Dantza urbanoko ikastaroaren hasiera	12. Orr.
22 Az		
23 Og	Erakusketa. «El principito en el mundo» (azaroaren 16a bitarte)	4. Orr.
24 Os		
25 La	Bakarriketa. «Fabiolo connection»	9. Orr.
26 Ig	Dantza, objektuak eta txotxongiloak. «Izadi»	10. Orr.
27 Al		
28 As	Pintura eta sorkuntza artistikoa ikastaroaren hasiera	13. Orr.
29 Az	Ipuin kontalaria. «Nire beldurrak txikitzen»	11. Orr.
30 Og		
31 Os		

Erakusketak



«JANTZIGINTZA ETA KAPELAGINTZA: ARTILEAREN AUKERAKETATIK AZKEN PUNTADETARA»

ARANTXA ESPARZA ELIZALDE ETA SANDRA ESPARZA
ELIZALDE

URRIAREN 19RA BITARTE

Jantzigintza eta kapelagintza artisauaren bidez, ehungintzako lanbideei ikusgarritasuna ematen dien erakusketa da hau, artilea material gisa balioan jarritz. Ikusezina den horren barrenean egindako ibilbidea da: xehetasunen zaintza, belaunaldiz belaunaldi igorritako ezagutza, eskuz egindakoaren balioa, lasaitasunez eta gertutasunez landua.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«EL PRINCIPITO EN EL MUNDO»

URRIAREN 23TIK AZAROAREN 16RA

Mertxe Ibañez Sola zangozarra Antoine de Saint- Exuperyren «Printze txikia» idazlanaren zale amorratua da. Urteetan zehar ale bilduma garrantzitsua bildu du.

Erakusketa honetan hainbat formatutan (haurrendako, braille, puzzle, pop-up) eta 660 hizkuntza, dialekto eta transkripzio baino gehiagotan (Star Wars filmeko lengoaiari kasu) argitaratu den liburu hau erakutsi nahi du.

Erakusketan, halaber, kartelak egonen dira azal batzuetako irudiekin eta barruko orriren batekin, ohikoak ez diren beste karaktere batzuk dituen idazkera mota ikus dadin.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.
Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara.
Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Erakusketak



«SAN SALBADOR, BERRAURKITZEKE DAGOEN ELIZA»

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK EGITEA

URRIAREN 12RA BITARTE

«Ondare arkitektonikoa: iraganera leihoak, etorkizunera ateak» lelopean, Europako Kontseiluak Ondarearen Europako Jardunaldiak sustatuko ditu irailaren 26tik urriaren 5era. Zangozak ospakizunarekin bat egiten du eta «San Salvador, berraurkitzeke dagoen eliza» erakusketa bisitatzeko aukera eskaintzen du.

Erakusketa Zangozako Udalak ekoitzi zuen 2024an, eta argazkien eta panelen bidez Zangozako San Salvadorren ondare-balioa hurbildu eta hura babesteko beharra nabarmendu nahi du. Eliza Interes Kulturaleko Ondasun izendatu zuten 2001ean, koruko egiturazko arazoengatik publikoari itxi zitzaion urtean.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Argazki-lehiaketa



«ZANGOZAKO JAIK 2025» VIII. ARGAZKI-LEHIAKETA

URRIAREN 13A BITARTE

Oinarriak eskuragai daude Kultur Zerbitzuan edo www.sangesacultura.es eta www.sangesa.es udaleko web-orrietan.

"Emoción, pólvora y metal"
Ana Bernardo

Arte eszenikoak eta musika karmengo entzunaretoan



ANTZERKIA

«Escape Room»

TXALO PRODUKZIOAK

LARUNBATEAN, URRIAK 4

Antzerkilariak: Zuhaitz Gurrutxaga, Nerea Gorriti, Iñigo Aranburu eta Oihana Maritorea.

Hautzarotik lagunak diren bi bikotek hitzordu bat jarri dute elkarrekin escape room bat bisitatzeko. Escape rooma dagoen auzoan berriki zatikatutako gizon baten gorpua edukiontzi batean agertu da... Bildutako lau lagunek ondo pasatzeko jolas atsegin bat aurkitzea espero dute, euren adimena probatzeko eta barre egiteko hitzordu bat. Aldiz, gelan sartu eta atea hermetikoki ixten den unean bertan, atzerako kontaketa hasiko da: inork espero ez dituen gauza bitxiak pasatzen hasiko dira.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 85 minutu. **Ordua:** 19:30.

Sarrerak: 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



DANTZA ETA MUSIKA TRADIZIONALA

«Batzen»

(Ikuskizun elebiduna gaztelania/euskara)

Cultur-Izan. Tradiziozko arte adierazpenen egitaraua

IGANDEAN, URRIAK 5

ROCAMADOR DANTZA TALDEA ETA
TIRIKI TRAUKI FANFARREA

Batzen Nafarroako Dantzarien Biltzarrak antolatutako dantza, musika eta kantu ikuskizuna da, Nafarroako folkloreaken aberastasuna ospatzen duena. Errepertorioa Zangozako Merindadeko dantzetan oinarritzen da, bertan bildutako musiketarik sortutako pieza tradizionalak eta jatorrizko koreografiak barne.

Ikusle guztiendako.

Iraupena: 75 minutu. **Ordua:** 19:00.

Sarrera doan gonbidapena aldeztu aurretik hartua.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika karmengo entzunaretoan



MUSIKA

«Un paseo por la zarzuela»

SÁBADO 11 DE OCTUBRE

Interpretatzaileak: Sofia Gutiérrez-Tobar, sopranoa; Claudia Maza, mezzo-sopranoa; Imanol Resano, tenorra; Álvaro Blasco, baritonoa; María Argüeso, piano-jotzailea.

«Zarzuelatik paseo bat» XIX. eta XX. mendeetako zarzuelaren unibertsoaren sarrera atsegin eta dinamikoa da. Lau abeslarik eta piano-jotzaile batek zarzuela-errepertorio ezagun eta baliotsuenaren abestirik bikainenak interpretatuko dituzte. Abesti guztiekin batera antzezpen labur bat egingen da, ikuskizun honetarako bereziki idatzitako testuekin.

Ikusleek zarzuelen saiorik ospetsuenez gozatu ahal izanen dute, hala nola «Luisa Fernanda», «Los Gavilanes», «El Caserío» edo «Don Gil de Alcalá». Espainiako genero lirikora hurbiltzeko aukera paregabea.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika karmengo entzunaretoan



ANTZERKIA

«Guapa»

EL MONO HABITADO

Sendaberri, paisaia eszeniko berriak

LARUNBATEAN, URRIAK 18

Zuzendaritza: El mono habitado.

Antzerkilariak: Begoña Martín Treviño eta Raúl Camino.

XX. mendearen hasieran fenomeno-ikuskizunek arrakasta handia zuten, publikoak ordaindu egiten zuen «izaki munstroak» ikusteagatik. Orain izaki horietako bat, Mary, «munduko emakumerik itsusiena» zela esaten ziotena, eta emakume bizarduna, eszenatokira igotzen dira berriro beren istorioa kontatzeko. Barre eta gozatu egiten zuten emakumeak zirela deskubrituko dugu, bai eta desirak eta grinak pizten zituztela ere. Pertsonaia historikoek, gizabanako arrotzek eta antzerkilariak beraiek hartzen dute hitza edertasunaz hitz egiteko, agerikoa den edo ezkutua dagoen edertasunaz. Ikusten ez den edertasunari buruzko ikuskizuna, ikusi gabe pertsonen begiratzen dieten pertsonen buruzkoa, desberdintasunari eta berdintasunari buruzkoa.

Ikuskizuna amaitzean, nahi dutenek aktoreekin solasaldi bat izan dezakete.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 60 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 6 €.

Txartel-leihatilan: 8 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Antolatzaileak eta babesleak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika karmengo entzunaretoan



MUSIKA

LA CALMA. Indie

Nafarroako Gobernuaren «Bira Nafarroan barna» programa

IGANDEAN, URRIAK 19

Musikariak: Xabier Jareño, gitarra eta ahotsa; Javier Indurain, baxua; Javier Aramendia, gitarra; Miguel Tiberio, synthes; Borja Alcate, gitarra; Borja Muerza, bateria.

La Calma taldeak bere lehen lana, «La ilustre degeneración» (2024ko abendua), aurkeztu zuenetik hilabete batzuk baino ez dira igaro, eta lan honi esker Veintiuno bezalako taldeekin agertokia partekatu egin dute. Indie eta new wave dira taldeak bere musika aurkezteko erabiltzen dituen bi etiketak.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 60 minutu. **Ordua:** 19:30.

Sarrerak: 5 €.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua



MONÓLOGO

«Fabiolo Connection»

FABILO (Rafa Maza)

LARUNBATEAN, URRIAK 25

Zuzendaritza: Rafa Maza eta Joe O'Curree.

Aktorea: Rafa Maza.

Fabiolo, bost kontinenteetako aberaskumerik lotsagabeena, arabiar emirerri boteretsu bateko xekearen alabari tenis eskolak emateko kontratatua izan da. Mila gau eta bat gehiagoko giroak liluratuta, gure hamalau gogokoenak algoritmoen misterioa ezagutuko du, xeke itxurak egiten dituzten hackerrak eta errealitate bikoitz batera konektatuta egotera behartzen gaituen mundu teknologiko baten atzean ezkututzen.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu. **Ordua:** 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



Arte eszenikoak eta musika karmengo entzunaretoan



DANTZA, OBJEKTUAK ETA TXOTXONGILOAK

«Izadi»

EL LAGARTO BAILA

IGANDEAN, URRIAK 26

Zuzendaritza: Leire Amonarriz.

Interpretatzaileak: Leire Amonarriz eta Alberto Almazán.

Dantza ikuskizuna, objektuen antzerkia eta txotxongiloak haurtxoendako eta lehen haurtzaroakoendako (0-4 urte).

Ikusleak: 0 eta 4 urte bitarteko haurrak.

Iraupena: 35 minutu. **Ordua:** 18:00.

Aldez aurreko sarrerrak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Zinea



«Buffalo Kids»

IGANDEAN, URRIAK 12

Zuzendaritza: Pedro Solís eta Juan Jesus Garcia Galocha.

Animazioa.

Tom eta Mary, bi anaia umezurtz, New Yorken lehorreratu dira XIX. mendearen amaieran. Osabarekin elkartzeko, polizioak bezala dabilta Mendebalde Basatian barrena doan tren batean, eta han ezagutuko dute Nick, beren bizitzak betiko aldatuko duen lagun berri eta aparta. Elkarrekin bidaia arriskutsu batean murgilduko dira, dolor gaiztoei aurre eginez, ustekabeko adiskideak eginez eta egoera paregabeak biziz.

Egokia ikusle guztiendako

Iraupena: 82 minutu. **Ordua:** 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerrak: 3 €.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ipuin kontalariak



«Todo el mundo a bordo»

(Gaztelaniazko ipuin-kontalaria)

DIVERXA.CRISTINA MARTÍNEZ

ASTEAZKENEAN, URRIAK 15

Bidaia honetan ez duzu pasaportetik behar, ez zara zorabiatuko eta ez duzu hegaz egiteko beldurrik izanen. Bidaia honetan leku exotikoak, oihan basatiz inguratutako hondartza tropikalak, baso misterioitsuak, urrutiko herrialdeak eta izoztutako herrialdeak bisitatuko ditugu. Hainbat orrazkera eta ohitura dituzten baina gure antzekoak diren haurrak ezagutuko ditugu. Bidaiaitzeko gogorik ez duten familiei lagunduko diegu, ez dutelako haien etxea utzi nahi.

Iraupena: 50 minutu.



«Nire beldurrak txikitzen»

(Euskarazko ipuin-kontalaria)

VENTURA RUIZ

ASTEAZKENEAN, URRIAK 29

Batzuetan norbaitek ezkututa dago nire ohe azpian, arnasa hartzen eta beldurra ematen dit entzuteak. Baina begiratzera ausartzen naizenean, pelusak eta ahaztutako jostailuren bat besterik ez dago. Benetan existitzen dira munstroak ala beldurra da existitzen dena? Etorri ikustera zerk izutzen gaituen eta nola aurre egin ahal diogun.

Iraupena: 50 minutu.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak.
Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Ordua: 18:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Sarrera doan edukiera bete arte.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ikastaroak



HAURRENDAKO SORTZE-DANTZAKO TAILERRAK

2016tik 2021era jaiotako hurrei zuzendutako dantza sustatzeko jarduera.

Irakasleak: Fueradeleje Dantza Konpainia.

URRIAREN 17TIK 2026KO EKAINAREN 5ERA

Eguna: ostirala.

Ordu-kopurua: 27.

Matrikula: 54 €.

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 15.

HAUR-DANTZAKO TAILERRA (I)

Adinak: 2019an, 2020an eta 2021ean jaiotako haurrak. **Ordutegia:** 18:15etik 19:15era.

HAUR-DANTZAKO TAILERRA (II)

Adinak: 2016an, 2017an eta 2018an jaiotako haurrak. **Ordutegia:** 19:15etik 20:15era.



DANTZA URBANOKO IKASTAROA

Dantza urbanoko tailer trinkoa, non, dinamika sortzaileen eta koreografien bidez, erritmoa, koordinazioa eta gorputz-adierazpena landuko diren giro parte-hartzaile eta motibatzaile batean. Taldean dantza ikasi, mugitu eta gozatu nahi duten gazteei zuzendua.

Irakasleak: Riart Company dantza konpainia.

URRIAREN 21ETIK AZAROAREN 11RA

Adina: 10 eta 18 urte bitartekoak.

Eguna: asteartea.

Ordutegia: 18:30etik 20:30era.

Ordu-kopurua: 8.

Matrikula: 16 €.

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 15.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultur Etxea.

Ikastaroak



PINTURA ETA SORKUNTZA ARTISTIKOARI BURUZKO IKASTAROA

Irakaslea: Mikel Belascoain.

Mikel Belascoain artista plastiko nafarra da, zinema zuzendaria eta Fábrica de Arte Nuevo eta Filmmaking for Social Change ekimenen sortzailea.

URRIAREN 28TIK MAIATZAREN 26RA

Eguna: asteartea.

Ordutegia: 18:00etatik 20:30era.

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 15.

Ordu-kopurua: 62,5.

Matrikula: 125 €.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultur Etxea.



Izen-emateak: urriaren 10era bitartean

Vallesantoro Jauregiko/Kultur Etxeko Informazio Bulegoan asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara edo 948 870 251 telefonora deituz

Izena emateko baldintzak: gutxieneko ikasle kopurura iristen ez bada, ez da jarduera gauzatuko.

Eskaria plazen eskaintza baino handiagoa bada, zozketa egingen da eskatzaile guztien artean. Izena emateko epea amaitu ondoren eta ikastaroa hasteko aurreikusitako eguna baino lehen ordainduko da ikastaroa Kultur Zerbitzuan.



Hitzaldiak



Karlos III.a Noblearen heriotzaren VI. Mendeurrenaren ospakizuna dela eta (1425-2025), Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak hainbat oroitzapenezko ekitaldi antolatu ditu. Zangoza aukeratu dute errege horri buruzko bi hitzaldiren egoitza izateko.

«**Karlos III. Noble**»

OSTEGUNEAN, URRIAK 9

Hizlaria: Eloisa Ramírez Vaquero. Erdi Aroko Historian katedraduna, "Carlos III. Gobernu ona" eta autoritate gorena Karlos III.aren.

«**Maiestate, prest dago berorren hopalanda. Jantztea Karlos III.aren gortean (1387-1425)**»

OSTEGUNEAN, URRIAK 16

Hizlaria: Merche Osés Urricelqui. Erdi Aroko Historian doktorea eta ostilamenduan, janzkeran eta zeremonialean aditua.

Ordua: 19:00.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoa.

Antolatzaileak: Nafarroako Errege Artxibo Nagusia eta Nafarroako Gobernua.



Helduen euskalduntzea

HELDUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Oinarriak eskuragai dituzue Kultur Zerbitzuan edo www.sanguesa.es eta www.sanguesacultura.es udaleko web-orrietan.

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik..

